

KULTUREA

“Meritua, guk barik, jaialdia antolatzen dabenek daukie”.
“Otxandioarrek asko lagundu deuskue grabaketa lanetan”.

Karlos Eriz elorriarrak eta Xabier Iñarrairaegi eibartarrak Lekeitioko Euskal Zine eta Bideo Bileran leen saria irabazi dabe, dokumentalen atalean. Orbelaren soinua lanean, bainolako edurzuloak izan ditue izpide, zelan, ozkailu faltan, edurra zulo batean pilatu eta gorde egiten eben, gero urtean zear erabilteko. Otxandioko Udalak orain 15 urte erabarritutako Astikurutz edurzuloa erabili dabe grabazinoetarako. Orain amar urte IKB (Informazio Komunikazio Bideoz enpresa sortu eben, eta badira bost urte, Elizburu kaleko egoitzan finkatuta dagozana. Antxe euki genduan sosasalditxo.

Euskal Zine eta Bideo Bileran parte artzen zenduen leenengo aldia al zan?

Ez, seigarrena izan da. Urtero, zer edo zer aurkezten saiatzen gara, izan be; sari banaketearen ostean afaria be egoten da etz! Egia esan, guretako motibazino bat da jaialdian parte artzea.

Eta irabazten dozuen leenengo saria da?

Iaz, Ruber Ordorika eta Mikel Laboa abeslariak protabonista, Korrika 13rako egindako bideoklip musikal bat aurkeztu genduan. Gustau jaken, antza, eta sormenezko lanik onenaren saria emon euskuen. Egunkariaren itxiera zala-eta egindako beste dokumental bategaz, bigarren postua be lortu genduan.

Olango ekimenak bearrezkoak dira ikusentzuneke komunikazinoa bultzatzeko, ezta?

Bai. Benetaro meritua, guk saria irabazteagatik barik, antolatzaileen eurek daukie, bilera oneek ogeita zazpigarren aldia bete dabelako aurten. Esaterako, Benito Ansola abadea ia frankismo garaitik dabil or lanean, urterik urte. Ez dauka meritu makala! Zoritxarrez, jaialdiak ez dauka oiartzun andirik. ETBn, normalean, ez da ezer agertzen, eta euskeraz dagoan olango ekimen bakarra da. Eta ez dinogu geugaitik, gu profesionalak garalako eta atzetik ibilbide bat daukagulako. Batez be, amateurrendako da importantea, eta ETBri kritika ori egin gura deusagu.

Lekeition parte artu dauen bideorik ikusteko aukerarik izan dozue?

Azken egunean ikusi genduzan batzuk. Dokumentalen atalean eta amateurretan, antzinako abioi baten prototipoa artura. Lekeitioko nagusi batzuk antzerako erreprodukzioa egiten ikusten ziran bideoa oso intergarria izan zan. Imanol Garaizabal elorriarrak be bigarren sari bat lortu dau, eta aitagarria da.

Zuen lana edurzuloai buruzkoa da. Zelan otu jatzuen gaia?

Ez zan geure ideai izan, Otxandioko batzurena baino. Orain amabost urte, Astikurutzeko edurzuloa erabarritu egin eban Udalez eta, bein a eginda, erritarren artean apur bat ezagutu eragin, gura eben.

Zer erakutsi dozue lanean?

Edurzuloen funtizona argitzen eta zelan erabilten eben azaltzen saiatu gara. Ia iru urte emon doguz lanean. Euskal Errian, berreundik gora izan ziran, XVII, XVIII eta XIX. Mendeetan. Orduko denporako gure arbasoek egiten eben prozesua erakusten dau. Edurra geruza ezaldinetan pilatzen eben, orbel ostoz bananduta; ortixe dator dokumentalaren izenburua. Egia esan, otxandiarren laguntasun andia izan dogu, aktore lanak egiteko.

Grabazino lanak zelan joan ziran?

Ondo, oro ar. Edurzuloaren barruan grabatzea konplikaua izan zan, argi gitxi egoan eta. Ganera, sarrera bat bakarrik euskanez, kableak disimulatzen naikoa buruauste izan genduan. Beste arazo bat edurragaz euki genduan, norberak gura dauenean ez dau egiten eta. Deiaren zain egon ginan, eta, bein deitu ostean, araino eltzeko be lanak izan genduzan.

Dokumentala orduko denporetan oinarrituta dago, orduan?

Bai. Orduko garaien errepresentazino bat da. Aktoreen jantzietan somatzen da ori. Izotza, besteak beste, Limonada Egunero edariak ozteko erabinten eben. Egun a gaur egunera ekarteko, errian ainbat aldaketa egin bear izan zan. Esaterako, trafijo seinaleak kendu, eta Udala orduko bandera batek atontzen eban.

Etorkizunera begira, zer asmo daukazue?

Suflarien moduan ibili: aal danean, olatua arrapau eta, gero, urrengoari itxaron. Oraingoaz, errespetu osoz, ez dogu ezkontzarik egin bearrik izan eta pozik gagoz. Bezeroekin be gustura gabilz; asko euskeraren munduari-eta lotuta dagoz, eta gai askotan bat egiten dogu.

Irakurlea: Cristina Otxandategi Zedrun - Oromiño, Zornotza